



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko otsailaren 19a

12 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzeari buruzkoa ([2. or.](#)).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzkoa ([4. or.](#)).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa ([14. or.](#)).

—Foru Lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, ordenagailuak erosi eta Nafarroako Foru Komunitatean Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzak arautzekoa ([19. or.](#)).

—Foru Lege proposamena, Euskal Naziorako Unibertsitateari buruzkoa. Tramitera ez onartua ([22. or.](#)).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irradi-komunikazioko instalazioak antolatuzkoa. Herrilan eta Azpiegiturak Batzordean izapidatzea ([22. or.](#)).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzeari buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko otsailaren 4an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzeari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**Lehena.-** Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzeari buruzko Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko martxoaren 11ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzeari buruzko Foru Lege proiektua**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44.26 artikulua adierazten du Nafarroak erabateko eskumena duela Lanbide Elkargoen arloan eta lanbide titulatuari buruzkoan, lege orokorreari jarraikiz.

Aipatu legeak zioenez, beraz, Nafarroak arlo horretako erabateko eskumena du. Nafarroako Foru Komunitateak zenbait eskumen hartu zituen bere gain. Arlo berezi horretakoaren ondorioz Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea onetsi zen. Foru Legearen erregelamenduzko garapena abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez egin zen, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Legea garatzeko Erregelamendua onetsi baitzuen. Horri jarraikiz, Nafarroako Podologoien Elkargoa sortzeko eskaera aurkeztu da, titulazio ofizial hori izan eta helbidea Nafarroan duten profesional gehienek eskaturik. Lanbide horretan aritzeko elkargo hori sortzea eskatzen dute eta, beraz, tramitazio horren ondorio da foru lege hau.

Podologiako Diplomatura ekainaren 24ko 649/1988 Errege Dekretuaren bidez sortu zen. Aipatu errege dekretuak Podologiako ikasketa planen jarraibide orokorrak finkatu zituen eta horietara egokitu beharra dute Unibertsitate Eskolek.

Aurretik, martxoaren 29ko 727/1962 Dekretuak podologiako espezializazioa ezarri zuen osasun laguntzaile teknikoentzat. Dekretuan podologoaren lanbide-esparruaren mugak finkatu ziren, baita praktikanteek eta osasun laguntzaile teknikoek zer baldintza bete behar dituzten podologo diploma hori lortzeko, betiere dekretua promulgatu zen egunean kirurgilari-pedikuro lanetan ari zirela ziurtatuta.

Azkenik, 1992ko azaroaren 25eko Aginduak baliokidetzat hartu zituen osasun laguntzaile teknikoeen podologia espezialitatea eta unibertsitateko Podologiako Diplomatura.

Kontuan harturik lanbideari buruzko autonomia eta arauak ematekoa, lehenago azaldu bezala, beharrezkotzat jotzen da Nafarroako Foru Komunitateko Podologoak biltzen dituen lanbide elkargoa sortzea, lanbidearen ordezkari izan dadin eta lanbidea zein elkargoko profesionalen interesak babestu ditzan, betiere gizartearen interes orokorrekin bat, eta gaur eguneko legearian lanbide hori arautu dezan.

Azalduetakoa ikusita, eta kontuan hartuz onura publikoko arrazoiak daudela Nafarroako Podologo Elkargo Ofizialaren sorrera justifikatzeko, bidezko da lege honen bidez aipatu elkargoa sortzea.

#### **1. artikulua.** Izaera eta araubide juridikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Podologo Elkargo Ofiziala sortzen da, zuzenbide publikoko korporazio gisa. Nortasun juridiko propioa du, eta ahalmen osoa bere helburuak eta eginkizunak betetzeko.

Lanbide elkargoak nortasun juridikoa izanen du Foru Lege honek indarra hartzen duenetik eta jarduteko gaitasuna gobernu-organoak eratzten direnetik.

#### **2. artikulua.** Jarduketa-esparrua.

Nafarroako Podologo Elkargo Ofizialaren jarduketa-esparrua Nafarroako Foru Komunitatea da.

**3. artikulua.** Elkargoko kide egiteko eskubidea.

Ondokoak egin daitezke Nafarroako Podologo Elkargo Ofizialeko kide:

1. Indarra duen legeriari jarraikiz, Podologiako Diplomaturako tituluaren jabe direnak.

2. Ekainaren 24ko 649/1988 Dekretuaren arabera egiten den lanbide eskubideen errekonozimenduaren ondorioz, podologo diploma dutenak, martxoaren 29ko 727/1962 Dekretuaren ezarritakoaren arabera emana (podologia espezialitatea ezarri zuen dekretua).

#### **4. artikulua.** Lanbidean aritzea.

Nafarroako Foru Komunitatean podologo lanean aritzeko ezinbestekoa izanen da Nafarroako Podologo Elkargo Ofizialeko kide izatea, non ez den egiaztatzen beste lurralde eremu bateko podologo elkargoko kide dela.

#### **5. artikulua.** Araudia.

Nafarroako Podologo Elkargo Ofiziala honako lege eta araei lotuta geldituko da: lanbide elkargoei buruzko legeria, elkargoaren estatutuak eta, elkargoaren barne erregelamendua, halakorik baldin badago.

### **Xedapen iragankorra**

1. Nafarroako Podologo Elkargo Ofiziala sortzeko batzorde sustatzaileak, legeak indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Podologo Elkargoko behin-behineko estatutuak onetsi beharko ditu, honakoak arautzen dituztenak:

a) elkargoko kide izateko baldintzak, elkarteko kide izateak bide emanen baitu Elkargoaren Eraketa Batzarrean parte hartzeko.

b) Eraketa Batzarrerako deialdia eta batzarren beraren funtzionamendua. Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Podologo Elkargoaren Eraketa Batzarrak honako hauek egin behar ditu:

a) Elkargoaren behin betiko estatutuak onetsi.

b) Elkargoko gobernu-organoetako kideak hautatu.

3. Elkargoaren behin betiko estatutuak, behin onetsitakoan, Eraketa Batzarreko aktaren ziurtagiriarekin batera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari igorriko zaizkio. Gero kontseilariak, Departamentuaren organo eskudunak legezkoak direla egiaztatu ondoren, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezela aginduko du.

### **Azken xedapena**

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzkoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledu-nen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Emakumeen eta gizonen aukera ber-dintasunaren aldeko jarduketei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.-** Aipatu Foru Lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

**Hirugarrena.-** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Emakumeen eta gizonen aukera ber-dintasunaren aldeko jarduketei buruzko Foru Lege proposamena**

ZIOEN AZALPENA

I

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna-ren printzipioaz Europan egiten den lehendabiziko aipamena 1957ko Erromako Ituneko da, ezarri baitzuen kide diren estatuen betebeharrak bat dela bermatzea lan berdinean aritzen diren ema-

kumezko eta gizonezko langileentzako soldata berdintasunaren printzipioa aplikatzea.

Artikulu horren garapen eta aplikazioari esker eman zen, 1975az geroztik, tratu berdintasunaren printzipioari buruzko Europako araudi nagusia, lan baldintzetako diskriminaziorik ezaren ingurukoa: Kontseiluaren 1975eko otsailaren 10eko zuzentara-ua, Kontseiluaren 1976ko otsailaren 9ko zuzentara-ua eta Kontseiluaren 1978ko abenduaren 19eko zuzentara-ua.

Europako legediaren aldarrikapenarekin ere, eguneroko jardunak frogatu du eginkizunak sexuen arabera usadiozko banaketa izan dela Europako gizartearen jokaeraren gidari. Izan ere, Europako Kontseiluaren "Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna" izeneko txostenak (Estras-burgo, 1992) zioenez, "gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, giza arrazoiaren exijentzia bada ere, ez da egitate bat, ezta ideal demokrati-koak aldarrikatzen dituzten gizarteetan ere".

Horrek Europako erakundeak bultzatu zituen biztanleen zati bati bere eskubideez berdintasu-nez baliatzea eragozten dioten trabak zuzentzeko tresnak taxutu eta eskura jartzera. Hartara, 1982az geroztik abian jarri dira, guztira, Aukera berdintasunerako Ekintza Komunitarioko bost pro-grama. Berrienak (2001-2005) zenbait alderdi har-tzen ditu, hala nola laneko jazarpen sexuala eta Europako Batasuneko organoen osaketa oreka-tua.

Espanian berdintasun printzipioaren ez da sartu antolamendu juridikoan 1978ko Konstituzioa aldarrikatu zen arte. 14. artikuluan honako hau dio: "Espainolak legearen arabera berdinak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik".

1983an emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa (NBE) berretsi izanak eta, urte horretan berean, Emaku-mearen Institutuaren sorrerak eta Europako

Komunitatean Espainia sartzek bultzatu dute Espainian ekintza positiboko zenbait programa eta gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunerako planak abian jartzea, Europako estrategia politikoari jarraikiz.

Era berean, autonomia erkidego batzuek beraien berdintasun planak eta arlo horretako legediak garatu dituzte, besteak beste, Andaluzia, Euskal Autonomia Erkidegoak edo Gaztela-Man-txa.

1978tik legedian egin diren aldaketek aurrerapen handia ekarri dute berdintasunari begira. Baina ez da nahikoa berdintasun formala, oraindik ere asko direlako gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasunezkoak ez diren egoerak bizitzaren arlo askotan (lana, aisia, kultura, lanpostu erabakimendunak, ordezkaritza politikoa, etab.)

Nafarroak ere lehenago aipatutako egoerak zuzentzeko tresnak gauzatu behar ditu. Bistakoa da langabezia desberdina dela emakumeen edo gizonezkoen artean, emakumeen parte hartzea txikia dela botereguneetan edo erabakiak hartze-koetan, emakumeen kontrako tratatu txarren kasuak gehitu egin direla, edo bizitza pribatuan eta publikoaren eremuak gizon eta emakumeen artean banatzeko moduak betikoa izaten dirauela.

Nafarroako Parlamentuak 2001eko urrian erkidegoari buruz eginiko eztabaidan aho batez adierazi zuen asmoa islatzeko aldarrikatzen da lege hau, gizon eta emakumeen arteko berdintasuneranzko bide luzean aurrera egiteko zenbait neurri eta proposamen biltzen dituen, arlo bat baino gehiagori begira: kontzientziazioa, hezkuntza, kultura, osasuna, ekonomia, lana, familia eta lan bizitza bateragarri egitea, gizarte eta politikako parte hartzea, generoko indarkeria, eta gizarte bazterkeria.

Neurri horiek bazterkeria positiboaz baliatu behar dira Nafarroako gizartea emakumeen eta gizonen eskubide berdintasun erabatekoa, formala zein erreala, lortzeko bidean jar dadin. Genero berdintasun erabatekoaren kontzeptu horrek definitzen duen egoeran gizaki guztiek, usadioz izan dituzten eginkizunek ezarritako mugak hautsirik, askatasuna dute beraien gaitasunak garatu eta erabakiak hartzeko, eta haien jokaerak, nahiak eta beharrak –gizonenak zein emakumeenak izan– hein berean aintzat hartu, baloratu eta indartzen dira.

Hortaz, bi helbururekin ematen zaio lege maila helburu eta neurri multzo bati: batetik, maila formal handiagoaz janztea gizartearen arazo larri hori eta, bestetik, herritarren eskubide eta administrazioaren eginkizun batzuk bermatzea, oina-

rrizkoak eta nahitaez bete beharrekoak izan daitezten. Izan ere, Nafarroako Gobernuak prestatzen dituen planak edo programak bezalako tresnak ez dira nahikoa berme horretarako, Parlamentuak gutxitan baizik ez dituelako eztabaidatu eta berresten, eta horrelakoetan ere ez direlako botere publikoek nahitaez bete beharrekoak.

## II

Generoko berdintasuna ez da emakumeengan soilik eragiten duen afera bat. Egiazko berdintasunerako gizarte osoaren konpromisoa behar da, gizonena eta emakumeena, administrazioarena eta administratuena. Beraz, berdintasuneranzko bideak premiazkoak ditu konpromiso politikoa eta zeharkakotasuna Foru Komunitateko administrazioak abiarazten dituen politika guztietan. Printzipio horiek dira lege honen kontzientziazioaren atalaren norabidea ezartzen dutenak.

## III

Gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasunik ez den gizarte baten sintoma nagusietako bat emakumezkoek gizartean eta politikan duten parte hartze txikia da. Egoera horren eragileak kulturalak eta eginkizun banaketa usadiozkoak heldu direnak dira, emakumeen eskuetan uzten baitute esparru pribatuaren zama, etxeaz eta familiaren kargura dauden pertsonen arduratzeko lana, gizonentzat utzirik bizitza publikoaren pape-ra.

Ukaezina da azken hogeita bost urteotan emakumeek erabakiak hartzeko guneetan duten parte hartzea eta presentzia areagotu egin dela progresio geometrikoan, baina egia da halaber estatistikek erakusten dutela asko dagoela egiteko gure gizartea berdintasunezkoa eta, horren ondorioz, demokratikoagoa, aberatsagoa eta zuzenagoa izan dadin.

## IV

Berdintasunezko gizartea lortzeko esparru benetan funtsezkoa hezkuntzarena da. Funtsezkoa da hori egungo neska-mutikoei, biharko gizon-emakumeek izanen direnei laguntza emateko, etorkizunean berdintasunezko gizarte batean parte har dezaten eta bizi daitezen.

Haurrek etorkizunean gizartean beteko dituzten paperak ikasteko duten gune nagusietako bat eskola da. Horrenbestez, hezkidetzak berebiziko garrantzia du, pertsonari, neska izan ala mutikoa izan, modu integralean garatzen –hezkuntza sistemaren xede nagusia– lagunduko dioten jarrerak,

baloreak eta gaitasunak sustatuko dituen heziketa den aldetik.

Deskribaturiko helburua erdiesteko garrantzizkoa da nola irakasleak hala gurasoak sentsibilizaztea, hezkuntza prozesuaren aktoreak baitira.

## V

Enpleguaz denaz bezainbatean, Espainiako Konstituzioak 35. artikuluan hauxe dio: "Espainol guztiok lan egitera behartuak daude eta baita lan aukera, profesio eta bizibide aukeramen libre batetarako ere badute eskubiderik; baita lanaren bidezko bultzapenera eta alogera nahiko batetara beraien eta familiaren beharriaztarako, inoiz ere sexu arrazoiagatik bereizketarik egin gabe".

Esan gabe doa aipatutakoa legezko eskubidea dela, bizitza errealean behar bezala garaturik ez dagoena. Emakumeek benetako zailtasunak izaten dituzte lanpostu duina eskuratzeko, amatasuna ia gainditu ezineko oztopo bihurtzen da, eta lana lortuta eta aurrera joanik ere, askotan gora egiteko mugak topatzen dituzte emakumeak izateagatik, eta kristalezko sabai ikusezin eta gaindizinarari egin behar izaten diote aurre.

Emakumeak lan munduan sartzeak ez du eka- rri ordainetan gizonak, balio berdineko lanagatik, jasotzen duen soldata berbera. Nafarroan ere, langabezia tasak onartzeko modukoak diren arren, emakume langabetuen tasa Espainian dagoenaren parekoa da.

## VI

Osasunaren arloan, emakumeentzako osasun laguntzarako kontuan hartzen zen berezitasun bakarra ugalketarekin zerikusia duena izan ohi da. Sekula ez da kontuan hartu emakumeek bestelako gaixotasun eta bestelako arazo medikoak izan ditzaketela.

Gizarte-osasunaren terminologian "Osasuna eta emakumea" kontzeptua "osasuna", ongizate fisiko, adimeneko eta sozialaren egoera osoa adierazteko terminoaren ondotik agertu zen. "Osasuna eta emakumea" kontzeptu integralaren kostua handia da, baina aurrerapauso nabarmenak eman dira osasun informazioaren arloan eta emakumeen osasunak dituen berezitasunen ikerketan.

Zehazki Nafarroan, aurrera pauso handia eka- rri zuen COFES izenekoak sortzeak, afektibitate eta sexualitatearen arloko laguntza integralerako zentro gisa. Azken denboretan, baina, birmoldatu eta osasun laguntza, besterik gabe, ematera

mugatu dituzte, prebentzioaren eta afektibitatearen inguruko portaerak bigarren mailara baztertuz.

Orobat aipa daiteke tabakoaren kontsumoak gora egin duela emakumeen artean, bai eta elikaduraren arazoak dituzten emakumezko nerabeen kopuruak ere. Botere publikoek neurriak hartzea eskatzen duten arazoak dira.

## VII

Bizitza publiko eta pribatuaren esparru gehienetan, hezkuntzan, lan merkatuan edo erakundeetan, adibidez, emakumeen partaidetza handitu bada ere, generoaren araberrako rolen usadiozko banaketak bizirik dirau gure gizartean.

Gizon eta emakume izatearen eredu estereotipatuak transmititzen dira oraindik ere, norberaren balioen gainetik, eta emakumeak segitzen du pairatzen balorazio txikiagoa gizonarekiko. Beharrezkoa da pentsaera aldatzea, berdintasunezko kulturaren elkarrekin bizitzeko, zenbait adierazpenetan emakumearen presentzia handiagorekin.

Beharrezkoa da hizkeratik bertatik abiatzea, emakumeak baztertzeko eragile nagusietako bat baita. Komunikabideek eta publizitateak ere estereotipo sexistak indartzen dituzte egunetik egunera. Kulturaz ari garenean, hortaz, ezinbestekoa da bi alderdi horiek bereziki azpimarratzea.

## VIII

Tratu txarrak eta sexu erasoak emakumeen kontrako indarkeriaren adierazpen zehatzak dira, adin, gizarte talde, kultura eta herrialde guztietan gertatzen dira eta munta handiko arazo soziala ekartzen dute, espainiarrengan duten eraginagatik, eremu pribatutik edo etxetik haratago doana eta ezbairik gabeko izaera sexista duena.

Gizarteak gero eta sentsibilitate handiagoa du orain arte etxeko pareten artean itxita eta isilean gorderik egon den emakumeen kontrako indarkeria honen aurrean. Nolanahi ere, urtez urte gero eta gehiago dira bikotekideen tratu txar fisiko eta psikologikoak jasaten dituzten emakumeak, heriotzaraino, batzuetan. Kasu gehienetan, eraso mota honetako biktimek babesgabezia dutenez, beharrezkoa izaten da botere publikoen esku hartzea koordinatua izatea eta jarduketa prozedura bate- ratuak ezartzea, biktimei babes integrala bermatze- ko.

Horrez gain, funtsezkoa da herritarrak hezi- tzea, bereziki haurrak, indarkeriarik bat ere ez dagoen gizartea erdietsi beharraz.

## IX

Gizarte bazterkeria saihesteko baliabideak eskuratzea herritartasunaren kontzeptuarekin zerkusia duen eskubidetzat jotzen da. Baliabide horiek desoreka sozioekonomikoak arintzeko erabili behar dira, arazo eta gabezia gehien dituzten gizartearen sektoreei laguntza emanez.

Gure gizartean azken urteotan izan diren aldaketa sakonenetako batzuek harreman zuzen dute emakumeek familian eta gizartean duten tokian izandako aldaketekin. Aldaketa horiek, batik bat, familia modua berrien ezarpena ekarri dute: ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteak, aitari gabeko familiak, eta bikote banaketak eta dibortzioak ugaltzea eta, horren ondorioz, txirotasuna emakumeen artean zabaltzea. Hala gertatzen da mendebaldeko herrialde guztietan, eta ekintza zehatzak behar dira arazoari konponbidea emanen bazaio.

Bestalde, bada emakume talde bat, emakumea izatetik heldu den bazterkeria ez eze bestelakoak ere jasan behar izaten dutenek osatua. Gizartean bazterkeria sufritzeko arriskua izateagatik gizarte laguntza behar duten taldeak, maizenik, droga, alkohola edo jokozaletasunak jotako emakumeenak dira, prostituzioan aritzen direnak eta espetxeraturik daudenak. Zenbait emakume talde horietako batean baino gehiagotan sarturik daude aldi berean.

Irizpide horiekin, gizarte zerbitzuak emakumeak gizarteratzeko garrantzizko baliabide bihurtu dira, sexuen arteko bazterkeria mota ororen prebentzioari eta desagerpenari begira jarduten dutelako, emakumeen parte hartzea bizitza sozialean erabatekoa eta egiazkoa izan dadin. Horrez gain, arreta bereziaz eta berariazko jarduerak eginez lan egin behar dute arrisku handiko egoeretan edo bazterkerian dauden emakume taldeekin eta, halaber, emakumezko etorkinekin, bazterkeria bikoitza jasaten baitute.

Beharrezkoa da, dudarik gabe, eskasia ekonomikoan dauden emakume taldeak babesteko politikak gauzatzen sakontzea, lehentasuna emanez dauzkagun gizarte zerbitzuen prestazioak eskuratzeari eta zerbitzu horiek zabalduz, beharrezkoa bada, emakume horientzat nahikoa baliabide badela ziurtatzeko.

### Lehen kapitulua Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da emakumeen eta gizonen artean egiazko aukera berdintasuna lor-

tzeko eragile indartsuak izanen diren neurriak arautzea, eta Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoentzako jarduketa plana da.

#### 2. artikulua. Aplikazio eremua.

Lege honetan aurreikusiriko neurriek gidatuko dute Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde eta entitateen jarduna eta Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osora zabaltzen dira. 2005. urteko abenduaren 31 arte izanen dute indarra.

### Bigarren kapitulua Jarduketa arloak

3. artikulua. Helburuak eta neurriak kontzientziazioaren arloan.

Kontzientziazioaren arloan, Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde eta entitateen helburuak hauexek dira:

a) Administrazioaren maila guztietan, politikarien nola funtzionarioen artean, sentsibilizazio eta kontzientziazioa generoko berdintasunaren gaitan.

b) Nafarroako gizartearen sentsibilizazioa generoko berdintasunaren gaitan.

c) Generoaren ikuspegia txertatzea administrazioaren jarduketa guztietan.

d) Nafarroako antolamendu juridikoa egokitzea gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren arloan nazioartean dauden araudietara.

e) Ikerketa eta zabalkundea, berdintasunaren gaitan dagoen legeria eta jurisprudentziarena.

Helburu horiek erdiesteko neurri hauek gauzatu dira:

a. Administrazioiko langile guztientzako genero berdintasunari eta praktika zuzenei buruzko ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak programatzea.

b. Administrazioiko dokumentuen azterketa, bertatik eta Nafarroako legedi indardunetik hizkera sexista ezabatzea.

c. Neurriak hartzea administrazioek egiten dituzten azterlan, argitalpen eta publizitatean hizkeraren erabileran bazterkeriarik ager ez dadin, administrazio hizkeraren erabilera sexista ez izateko orientabideak emanen dituzten materialak prestatu eta zabaltzea, administrazioaren argitalpenetako estilo batasuna erraztu eta bermatzeko.

d. Funtzio publikoan sartzeko baremoei generoko berdintasunari buruzko ikastaroak gehituko zaizkie.

e. Administrazioak zerbitzu publikoak betetzeko enpresen kontratazioetako lehiaketan baremoei enpresa horiek generoaren arloan praktikak zuzenak izatea gehituko zaie.

f. Nafarroako udaletan emakumearen zinegotzigoak sortzea eta genero berdintasunaren aldeko jarduerak betetzea sustatuko da, kanpaina, pizgarri ekonomiko eta bestelako baliabideak erabiliz, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean.

g. Administrazioa berrantolatu egingen da, Nafarroako Emakumearen Institutua Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza Departamentuaren menpeko organismoa izan dadin.

h. Urtero, kontusail bat ezarriko da Nafarroako aurrekontu orokorretan, NEIren aurrekontuaren zuzkidura behar bestekoa izan dadin, lege hau garatzeko neurriak bete ahal izateko, eta Nafarroako aurrekontu orokorretako kontusailetan, Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzean, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko baliabideak sartuko dira.

i. Urtero, Toki Administrazioiko Departamentuaren barrenean transfrentzia funtsa bat emanen zaie udalei genero berdintasunaren aldeko jarduerak egiteko eta emakumearen zinegotzigoak ezartzeko.

j. Nafarroako antolamendu juridikoaren azterketa, aldaketak egiteko gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren gaiei buruz Europako Batasunak emaniko zuzentarauen eta nazioarteko komunitateak emaniko arauen arabera.

k. Emakumeengan eragina duten arauen aldzakako jarraipena egingen da, Foru Komunitateko auzitegiek horren inguruan emaniko epaiak aztertuz. Komunikabideetan eta bestelako toki publiko eta pribatuetan etengabeko kontzientziazio kanpainak egingen dira.

l. Genero berdintasunaren aldeko elkarteak bultzatuko dira eta arlo horretan aritzen diren elkartei sostengua, ekonomikoa zein bestelakoa, emanen zaie.

m. Lege hau garatzeko lanetan generoko gaietan aritzen diren elkarteak inplikatu dira, bereziki Nafarroako Emakumearen Institutuan ordezkaritza dutenak.

n. Foru Komunitateko gizon eta emakumeek bikoteak puskatu eta banatzeari, dibortzioei eta egitatezko bikoteei buruz dituzten iritziak ezagutzeko azterlanak egingen dira, bai eta tratu berdintasunean eragina duten beste alderdi batzuei

buruz ere, gizartearen kontzientziaziorako erabakien eta jarduketan oinarri izan daitezten.

o. Aukera berdintasunerako eragile eta sustatzaileen prestakuntza sustatuko da, lan, hezkuntza, kultura eta beste arlo batzuetan ekintza positiboak gauzatzeko.

**4. artikulua.** Helburuak eta neurriak gizarte eta politikako partaidetzaren arloan.

Gizarte eta politikako partaidetzaren arloan, Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko organo eta entitateen helburua izanen da emakumeen parte hartzea sustatu eta areagotzea bizitza politikoa eta gizartean.

Aurreko xedea lortzeko honako neurri hauek erabiliko dira.

a) Emakumeen elkarteak, edozein motatakoak, sustatzeko kanpainak egingen dira eta pizgarri ekonomikoak emanen zaizkie emakumeei kide izatea errazten dieten elkartei, bereziki partaidetza oraindik txikia den tokietan, herrietan adibidez, eta emakumeen ordezkaritza behar den baino txikiagoa den elkarteetan.

b) Emakumeen eta gizonen presentzia entitate edo elkarteetako organo erabakitzaile eta beteazleetan berdintasunezkoa izatearen alde egingen da, kanpaina eta pizgarrien bitartez.

c) Emakumeen eta gizonen presentzia alderdi politikoetako organo erabakitzaile eta betearazleetan berdintasunezkoa izatea sustatuko da eta, halaber, hauteskundeetarako horiek aurkeztutako hautagai zerrendetan ere, eta pizgarri ekonomikoak emanen zaizkie hautagai zerrendetan emakumeen presentzia handitzen duten indar politikoei.

d) Komunikabideetan kanpainak programatuko dituzte, batez ere gizonen zuzenduak, emakumeek gizartean eta politikan parte hartzearen garrantziaz eta beharraz.

**5. artikulua.** Helburuak eta neurriak hezkuntzaren arloan.

Nafarroako Gobernuak, hezkuntzaren arloan helburu hauek betetzeko konpromisoa hartuko du:

a. Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren alde egingen duen hezkuntza sustatzea.

b. Irakasleak, gurasoak, eskola kontseiluak eta hezkuntza erkidego osoa sensibilizatzea genero berdintasunaren garrantziaz.

c. Ikasketak hautatzerakoan neska-mutilen generoaren araberrako diskriminazioa ezabatzea.



Helburu hori lortzeko, neurri hauek erabiliko dira:

a. Hezkuntzako profesionalentzako ikastaroak, jardunaldiak eta mintegiak, generoaren ikuspegia ikastetxeetan ematen diren irakasgai guztietan.

b. Ikastetxeetako gurasoen elkarteetako kideentzako ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak eta mintegiak, generoaren gaitako haien prestakuntzari eta seme-alabei berdintasun baloreak transmitzeari begira, emakumeen lanbide prestakuntzaren mailak duen garrantzia barne dela, ikasketak utz ditzatela saihesteko eta berme sozialeko programetan sar daitezen bultzatzeko.

c. Hezkuntza eta lanbide orientazioa lan merkatuaren interesetara eta ikasleen gustu eta interesetara egokitzea bultzatuko da, ikasketak hautatzerakoan sexuan oinarrituriko diskriminazioko jarrerak kentzeko, bai irakasleen artean, bai ikasleengan bai gurasoengan, tutoretza eta informazio hitzaldien bidez.

d. Ikasleei orientabidea emateko prozesuetan norberaren ezagutzarekin eta harreman pertsonaletan parte hartzen duten elementuen ezagutzarekin zerikusia duten alderdiak txertatzea sustatuko da, ikasleak berdintasunezko harremanak izateko gai izan daitezen.

e. Ikasleen azken prestakuntza etapetan txertatzea langileen eskubideekin lotutako gaiak, bereziki familia eta lan bizitza bateragarri egiteko legeria.

f. Sentsibilizazio kanpainak gauzatuko dira eskola erkidegoarentzat, kirol jarduerak sustatzeko eskolan emakumezko ikasleek osaturiko taldeak eratuz.

g. Hezkidetzan oinarrituriko material didaktikoa sartzeari, hizkera ez-sexista erabiltzen duena eta emakumeak historian zehar izandako papera aipatzen duena.

h. Nafarroako Gobernuak bekak eta sariak eratzeari emakumearen inguruko gaitan ikertzeko.

i. Ikasleek praktikak egiteko hitzarmenak berraztertzea aukera berdintasunaren printzipiora moldatzeko.

j. Emakume helduen artean prestakuntza eta ikasketak bultzatzea, beste garai batzuetan oztopo handiagoak izan dituztelako hezkuntza jasotzeko, helduen eskolak, hirugarren adineko ikasgelak, NUPen esperientziaren ikasgela sortuz eta bultzatuz, kontuan harturik emakumeen ahalmenen aniztasuna eta ikastaroen ordutegiak familiaren premietara egokitu behar direla.

k. Generoaren ikuspegia eranstea helduen prestakuntza iraunkorrerako ikastaoen ebaluazioan eta edukietan.

**6. artikulua.** Helburuak eta neurriak ekonomia, lana eta familia eta lan bizitza bateragarri egiteko ahaleginean.

Nafarroako Gobernuak, lan arloan, helburu hauek erdiesteko konpromisoa hartzen du:

a. Emakume langabetuen kopurua jeistea, emakumea lan merkatuan sartzeari erraztuz.

b. Emakumeek lanpostu duin eta egonkorak eskuratzea sustatzea, taldeak jasaten duen behin-behinekotasun tasa altuak jaitsi eta ezkutuko lanak desager daitezen sustatzea.

c. Emakumezko langileen lanbide gaitasunak hobetzeko prestakuntza, prestakuntza iraunkorra eta birziklapena sustatzea.

d. Familia eta lan bizitza bateragarria egitea sustatzea.

e. Emakumeen enpresa ekimenei sostengu ematea.

f. Lansarrietan, emakumeen kontrako diskriminazioa ezabatzearen alde egitea.

g. Sentsibilizazioa lanpostuko jazarpen sexual eta mobbing edo jazarpen moralaren aurrean.

Aurreko helburuak erdiesteko honako neurri hauek hartuko dira:

a) Emakumeek lan merkatuan duten egoerari buruzko azterlanak egitea ondoren erabakiak hartzeko.

b) Emakumeen kontratazioaren alde egitea dirulaguntzen eta zerga arloko neurrien bidez, bereziki emakumeen ordezkari behar baino txikiagoa den sektore ekonomikoetan.

c) Emakume langabetuen lanerako prestakuntzarako behar beste baliabide erabiltzea.

d) Etxeko lana eta Nafarroako BPGari egiten dion ekarpena balioesteko sistemak garatu eta aplikatzea, eta emaitzak estatistikako argitalpenetan agerraraztea.

e) Familiako kargen arduraren hartzea –haurrak, zaharrak, gaixoak, etab. zaintzea– aukera librean izan dadin lagungarri diren zerbitzu publikoei behar adina baliabide ematea. Horrek esan nahi du zaharretxeetan eta eguneko zentroetan behar diren tokiak izatea, etxeko laguntzaren zerbitzua hobetzea, eta 0tik 3 urtera bitarteko hezkuntza zikloa egiaz ezartzea Nafarroako ikastetxe guztietan, eta halaber probatarako esperientziak egitea

industria asko den tokietan; eskolako jangela eta garraio zerbitzuak bultzatzea, eta horretarako behar diren dirulaguntzak; kasu guztietan, ordutegiak familiaren lan premien arabera egokituko dira.

f) Lan planetan sartzea, arreta berezia eskainiz, egoera bereziki behartsuan diren emakumeak, besteak beste, gutxiengo etnikoetakoak, etorkinak, berrogeita bost urtetik gorakoak, familia kargak dituzten alargunak, esperientziarik edo ikasketarik gabeko emakume gazteak, aitarik gabeko familiak, eta oro har gizarte bazterkeria jasateko arriskuan diren guztiak.

g) Lan arloko eskubideei buruzko prestakuntza ematea emakumeei, batez ere familia eta lan bizi-tza bateragarri egiten laguntzen duten horien inguruan, elkarte, sindikatu, enpresaburu eta inplikaturiko beste sektore batzuen bitartez, eta komunikabideetan kanpainak eginez.

h) Sari bat sortzea haien enpresa jardunean genero berdintasunaren arloan praktika onak sustatzen dituzten Nafarroako enpresentzat.

i) Emakumeentzako prestakuntza etengabea eta birziklapena sustatzea, batez ere aldi baterako familiako kargak bere gain hartzeagatik lanpostua uzten dutenentzat.

j) Emakumeen kontratazioa behin-behineko kontratuen bidezkoa izan ez dadin bultzatzea, neurri fiskal eta, oro har, ekonomikoak ezarriz.

k) Emakumeak prestatzea enpresa ekimen pribaturako, bereziki formula sozialetan eta enplegu sorgune berriak dakartzaten jardueretan.

l) Foru Komunitateko administrazioak ez du zerbitzurik kontratatuko haien hitzarmenetan lan arloan emakume eta gizonen arteko diskriminazioa egiten duten enpresekin.

m) Familia bitartekaritzako zerbitzu bat sortzea, eta haren profesionali prestakuntza ematea aukera berdintasunaren arloan.

n) Bizikidetasun unitateko kide diren pertsonak zaindu eta artatzeak dakartzan gastuen tratamendua egokiagoa izan dadin baliagarri diren zerga arloko neurriak sustatzea (familiagatiko gutxienekoa errealaagoa, etxeko zerbitzuan lanean aritzen diren pertsonen Gizarte Segurantzaren kuotak zergetatik kentzea, eta beste batzuk).

o) Laneko jazarpen sexualaren eragina eta maiztasuna aztertzea. Laguntza legal, psikologiko eta ekonomikoa egoera horretan dauden emakumei. Gizarte ordezkariari orientabideak eta sostengu teknikoak ematea egoera hauen irtenbideak proposa ditzaten.

p) Etxeko langileentzako arreta berezia eta lege babesa sustatzea, zerbitzu honen lan baldintzak eta gainerako langileenak parekatzeko ekintzak gauzatuz, batez ere haien araubide berezia Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrekin parekatzekoak.

**7. artikulua.** Helburuak eta neurriak osasun arloan.

Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek helburu hauek sustatuko dituzte osasunaren arloan:

a) Nafarroako osasun arloko profesionalak prestatu eta sentsibilizatzea generoaren ikuspegia eransteko osasun laguntzari.

b) Nahi gabeko haurdunaldien prebentzioa eta nerabezeroan gertatzen diren abortuen kopurua jaistea.

c) Afektibitate eta sexualitatearen arloko laguntza hobetzea.

d) Emakumeengan eragina duten osasun gaietan laguntza hobetzea.

Aurreko xedeak erdiesteko, honako neurri hauek ezarriko dira:

a. Prestakuntza bultzatzea emakumeen bizitza-zikloan izaten diren aldaketekin eta haren osasunean eragina izan dezakeen egungo gizarte eta lan egoerarekin zerikusia duten esku-hartze eremuetarako.

b. Prestakuntza programak egitea, osasun arloko langileak emakumeen ordezkartza behar baino txikiagoa izan ohi den gaietan lanean sar daitezten.

c. Osasun arloko emakumezko langileak erantzukizuneko eta ikerkuntzako lanpostuetan ari daitezten bultzatzea.

d. Osasun zentroetan behar diren aldaketak egitea erabiltzaileen intimitatea bermatzeko eta profesionalakiko komunikazioa hobetzeko.

e. Informazio eta heziketa programa integralak aurrera eramatea, portaera sexual autonomo eta arduratsua lortzeko, nerabeei zuzendurik bereziki, eta haurdunaldien prebentziorako ekintzen jarraipena egitea.

f. Nerabeentzako antisorgailu egokiaren eskaintza zabaltzea, eta eskuragarritasuna eta orientazioa hobetzea.

g. Emakumei laguntzeko zentrozen eskaintza handitzea eta Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentrozen izaera ematea, prebentziorako zentro integral gisa, ez laguntzarako soilik; giza

eta gauza baliabide gehiago ematea zentro horiei, beste gai batzuek ere arduratu daitezten: laguntza psikologikoa, sexu portaeraren inguruko orientabideak, antisorgailuak, antzutasuna eta ugalketarako teknika berriak, haurdunaldia borondatez etetea, etab. Era berean, azterketa ginekologikoen kopurua gehitzea, urtean behin gutxienez, egin ahal izateko.

h. Laguntza bidezko ugalketarako teknika berriei bultzada ematea Nafarroan.

i. Nafarroako Osasun Zerbitzuari behar diren bitartekoak ematea Nafarroako osasun publikoan haurdunaldia borondatez eten ahal izateko.

j. Menopausiari buruzko programak eta kanpainak egitea, bai osasun arloko profesionalekin bai emakumeekin, osasun jarrera egokiak sustatu eta estereotipoak desagerrarazten laguntzeko.

k. Gazteak ibiltzen diren zentroetan kanpainak egitea eta oinarritzko osasun laguntzako profesionalen prestakuntza sustatzea elikadura arazoan inguruan (anorexia eta bulimia), banakako laguntza, familiakoa eta gizarte mailakoa hobetzeko eta eritasuna larriagotzeari aurrea hartzeko.

l. Laneko osasun azterketetarako eredu berriak prestatzea, emakumezkoen eritasunak agertuko dituzten adierazleekin eta egungoak, batez ere gizonezkoen artean gertatzen diren patologiei begira eginak, hobetzeko.

m. Nafarroako Parlamentuak onetsiriko tabakoaren aurkako plana bultzatzea emakumeak gehiengo diren tokietan.

n. Bularreko minbiziaren antzemate goiztiarerrako programak beste adin batzuetara zabaltzea eta diagnostiko positiboa duten emakumeek behar duten sostengu psikologikoa bermatzea.

o. Emakumeen artean GIB kutsatzeari aurrea hartzeko programak eta kanpainak zabaltzea.

**8. artikulua.** Helburuak eta neurriak kulturaren arloan.

Hauexek dira helburuak kulturaren arloan:

a. Emakumeek kultura eskura izan dezaten laguntzea, kultura sortzaile eta kontsumitzaile bilaka daitezten eta kultura, horrela, aberatsagoa eta solidarioagoa izan dadin.

b. Hizkera sexista, adierazpen guztietan, desagerraraztea.

c. Biztanleek, oro har, kontzientzia har dezaten emakumeek eskubidea dutela denbora libreaz gozatu eta aisia jardueraz betetzeko.

d. Komunikabideetan emakumeen irudia diskriminazio eragilea izan ez dadin sustatzea eta estereotipo sexistak ezabatzea.

Kulturaren arloko xedeak erdiesteko jarduketa hauek gauzatuko dira:

a. Gizartearen esparru guztietan eta herri adierazpenetan edo/eta usadioetan jarrera homofobikoak, intoleranteak eta sexuan edo aukera sexualean oinarrituriko diskriminazioak ezabatzera bideraturiko jarduerari laguntza ematea eta jarrera horien salaketa bultzatzea.

b. Barrenean gizartearen ikuspegi ez sexista duten kultur adierazpenak bultzatzea, baita emakumeek eta emakumeei buruz eginiko kultura ere.

c. Emakumeen sormen lana, artean eta literaturan, sustatzeko deialdiak edo sariak, urterokoak, ezartzea.

d. Kultur politika zabalak, ez elitistak eta sexuan edo hezkuntza mailan oinarrituriko diskriminazioaren eragile ez direnak.

e. Aukera berdintasunaren ikuspegitik emakumearen gaiari buruzko (hezkidetzak, feminismoa, lana, prestakuntza, etab.) liburu eta materialez hornitzea liburutegi publikoak, dokumentazio zentroak eta ikus-entzunezkoen baseak, eta bertan atal berariazkoa sortzea, horien identifikazioa eta erabilera errazteko.

f. Jarduera fisikoetan eta kiroletan emakumeen presentzia bultzatzea, eta informazioa ematea horiek dakartzaten onura fisiko, psikologiko eta sozialei buruz, eta laguntzak ematea herri txikietan ere horrelakoetan aritzeko.

g. Nafarroako komunikabideetako jarrera sexisten inguruko behatoki bat ezartzea, eta generoko berdintasunaren kontrako jarrerak antzemanez gero, horien salaketa publikoa egitea.

**9. artikulua.** Helburuak eta neurriak generoko indarkeria desagerrarazteko.

Hauexek izanen dira Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen xedeak generoko indarkeria desagerrarazteko ahaleginetan:

a. Emakumeen kontrako indarkeria mota oro ezabatzea.

b. Biztanleriarentzako sentsibilizazio kanpainak aurrera eramatea generoko indarkeriaren existentziak, horren arrazoiez eta haren kontrako borrokaz eta prebentzioaz.

c. Estatuko Segurtasun indarretako kideak jabeaztea generoko indarkeriaren biktima diren emakumeen egoeraz eta beharrez.

d. Abokatuak, judikatura, fiskalak eta justizia arloko gainerako langileen kontzientziazioa eta sentsibilizazioa generoko indarkeriaren inguruan.

e. Foru Komunitateak eskura dituen tresnen bitartez, aldaketak bultzatzea legedia indardunean, tratu txarrak ematen dituztenen kontrako zigorrak gogortu eta eraso gehiago galarazteko neurri eraginkorrak hartzeko.

f. Kanpainak egitea, herritar guztiek eta bereziki emakumeek behar beste informazio izan dezaten dauden baliabideei buruz.

g. Emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartzeko hezkidetzako materialak prestatu eta zabaltzea sustatzea.

Helburu horiek erdiesteko, jarduketa hauek gauzatuko dira:

a. Kontzientziazio kanpainak egitea komunikabideetan emakumeen kontrako indarkeria mota oro ezabatzeko eta tratu txarrak eta erasoak salatzeko sustatzeko helburuarekin.

b. Ikastetxeetan generoko indarkeriari aurrea hartzeko kanpainak gauzatzea, haurrek indarkeriazko jarrerarik eduki edo onar ez dezaten heldu izatera ailegatzean.

c. Emakumeen eta adingabeen kontrako indarkeriarako fiskaltza bereziari behar dituen giza eta ekonomia baliabideak ematea eraginkortasun eta azkartasunez jardun dezan.

d. Nafarroako Foru Komunitatean egun dauden Emakumeei laguntzeko zentroek irauteko behar den babes ekonomikoa bermatzea eta eskualde buru guztietan laguntza zentro horietako bat ziurtatzea, baita arazo eta premia bereziak dauden tokietan ere.

e. Abegi etxeak edo larrialdietarako pisuak sortzeko irizpideak finkatzea.

f. Egungo abegi etxea handitzea eta larrialdietako pisuen zerbitzu bat sortzea Tuteran, Lizarran, Baztanen eta mendialdean, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzekin.

g. Tratu txarrak jasandako emakumeen seme-alabentzako ludo-hautzaindegiak sortzea, zerotik hamabi urte bitarteko haurrentzako.

h. Larrialdietako diru laguntzetarako kutxa berariazkoa sortzea, emakumearen autonomiari eta ezkontideen etxetik alde egiteari laguntzeko.

i. Zerbitzu publikoek laguntza psikologiko espezializatua eta doakoa ematea emakumei eta haien seme-alabei, krisialdian ez ezik prozesu terapeutiko osoan ere.

j. Sentsibilizazio kanpainak egitea osasun arloko langileen artean, indarkeria sexista ez-agerikoren egoerei antzemateko edo/eta eskaera espresei erantzun egokia emateko.

k. Indarkeria sexista desagerrarazteko jarduerak betetzen dituzten elkarteei behar adinako baliabide ematea.

l. Tratu txarrak jasandako emakumeentzat lehenetsuneko eskubidea ezartzea sustapen publikoko etxebizitzak adjudikatzeko garaian eta horretarako laguntzak jasotzeko.

m. Pizgarriak eta dirulaguntzak ezartzea indarkeria sexistaren biktima diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresa edo entitateentzat eta emakumeentzat beraientzat ere langile autonomo gisa arituz gero.

n. Nafarroako Gobernuak doako laguntza juridikoa emanen die tratu txarrak jasaten dituzten emakume guztiei, eta oinordei ere, baleude.

o. Erasotzaileak berregokitzeko programak ezarriko dira, eta eskatzen dutenei laguntza psikologikoa eta tratamendu berezia emanen zaie.

**10. artikulua.** Helburuak eta neurriak gizarte bazterkeriaren arloan.

Hauexek izanen dira Nafarroako Gobernuaren xedeak gizarte bazterkeriaren arloan:

a. Emakumei informazioa ematea Nafarroan dauden baliabideei buruz.

b. Gizarte zerbitzuetako langileei prestakuntza ematea emakumeen arazo berariazkoei buruz.

c. Bakarrik dauden emakumeen edo familia kargak dituztenen behar berariazkoei erantzuna ematea, estuasun ekonomikorik izan ez dezaten eta gizarte eta lan bizitzan integratzen laguntzea.

d. Drogaren inguruko prebentzio kanpainetan eta drogazaleei laguntzeko programetan tokia egitea emakumeen arazo berariazkoei ere.

Helburu horiek erdiesteko, jarduketa hauek gauzatuko dira:

a. Dauden gizarte baliabideei, haien helburuei eta eskuratzeko moduari buruzko informazio kanpainak egitea komunikabideez baliatuz.

b. Gizarte zerbitzuetako maila guztietako profesionalei prestakuntza eta birziklapen ikastaro-

ak ematea, bai eta emakumeen eta haien familien beharretarako laguntza egokienari buruzkoak ere.

c. Gizarte zerbitzuen jarduketa moduei buruzko protokoloak prestatzea, jarduteko irizpideak bateratzeko.

d. Familia kargak dituzten eta bakarrik dauden emakumeen kargura dauden pertsonen lehentasuna izatea gizarte eta komunitateko zerbitzuak eskuratzeko.

e. Bakarrik dauden emakumeek eta/edo familia kargak dituztenek lehentasunezko eskubidea izatea gizarte babeseko etxebizitzak edo etxebizitzarako laguntzak bereganatzeko.

f. Ama nerabeentzako gizarte baliabideak garatzea, hala nola, etxe babestuak, prestakuntza eta gizartean eta lanean integratzen lagunduko diotenak.

g. Banaketa edo dibortzio prozesuetan edo ezkontzaz kanpoko seme-alabentzako epaileak ebazpen bidez ezarritako pentsioak jasotzen direla bermatzeko tresna juridikoak ezartzea.

h. Drogamenpekotasunen, ludopatiaren, tabakismoaren eta alkoholismoaren kontrako prebentzio kanpainak egitea ikastetxe eta institutuetan, eta kontsumoak eta mendekotasunak dituzten ondorioei buruzko informazioa ematea.

i. Prostituzioan aritzen diren emakumeentzako osasun babesa areagotzea, eta haientzako laguntza banakakoa eta etengabea izan dadin saiatzeko.

j. Nafarroako kartzela baliabidez hornitzea, kartzelaren esparruan bertan preso dauden emakumeek eta haien seme-alabek prestakuntza, hezkuntza, kultura eta lan jarduerak bete ahal izateko.

k. Gutxieneko pentsioak lanbidearteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko eskaerari erakundeen sostengua ematea.

l. Gutxieneko pentsioak jasotzen dituzten pertsonen, bereziki familia kargak dituzten alargunei gizarte babes eskaintzeko zeharkako bideak

ezartzea (etxebizitzarako laguntzak, enplegurako, seme-alaben hezkuntzarako, etab.).

m. Emakumezko etorkinek gizarte zerbitzuak eskuratzeko kanpainak egitea, tratu txarrei eta erasoei aurre egiteko lege arloko prestakuntza eta autoestima eta gizarte trebetasunak lantzeko ikastaroak egitea.

### **Hirugarren kapitulua** **Nafarroako Foru Komunitatek** **administrazioaren aurrekontu konpromisoak**

#### **11. artikulua.** Aurrekontu konpromisoak

Nafarroako Gobernuak foru lege honetako neurriak gauzatzeko behar diren zenbatekoak aurreikusiko ditu Nafarroako aurrekontu orokorretan, 2002tik 2005era bitartekoetan.

#### **Xedapen gehigarria**

Nafarroako Gobernuaren esku uzten da, eta horretarako ahalmena eman, foru lege honen edukiaren ondorioz arauetan eta erregelamenduetan egin beharreko aldaketak egiteko, haren esku-mugen mugen barrinean.

Era berean, Nafarroako Gobernuaren esku uzten da Nafarroako Parlamentura igortzea foru lege honetan aurreikusiriko helburuak eta neurriak betetzeko behar diren foru lege proiektu guztiak, indarra hartu eta sei hilabeteko epean.

#### **Xedapen iragankorra**

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau 2002ko aurrekontu ekitaldian aplikatzeko konpromisoak betetzeko helburuarekin, kreditu bereziari buruzko lege proiektua igorriko du Nafarroako Parlamentura, honek onetsi dezan, foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, luzatutako aurrekontuen aurreikuspenak nahikoak ez badira.

#### **Azken xedapena**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## Foru Lege proposamena, pertsona zaharrak hartzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeak pertsona zaharrak hartzea-ri buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parla-mentu-ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.-** Foru Lege proposamen hori Nafa-roako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### Pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena

#### ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parla-mentuak pertsona zaharrei laguntzeari buruzko plangintza-tresna gisa onetsi zuen 1997-2000 eperako Nafarroako Plan Geron-tologikoa, eta helburu zuen Nafarroako Foru Komunitatean pertsona zaharrentzako laguntza-ren esparruan aztertutako edo aplikatzen hasitako neurri guztiak koordinatzea.

Plan horrek biltzen zituen 1993an Kontuen Ganbarak eman zuen Hirugarren Adinerako Pro-gramaren Fiskalizazio Txostenean egindako gomendioak, eta bizikidetasun-modu ezberdine-i nahiz haien babes juridiko eta ekonomikoari buruzko aipamenak egiten zituen.

Nafarroako gaur egungo gizarteak elkarri laguntzeko harremanak barnean hartzen dituzten bizikidetasun-egoerak agertzen ditu; bereziki, per-tsona zaharrei dagokienez. Horrela, haiek dauz-katen zailtasunak gainditzea bilatzen da.

Pertsona bati familian hartuz laguntzeko modu hori, ukiturikoek berek pentsio edo "apopilo" moduko egoeratzat hartzen dute. Horrelakoetan abusuak edo babesgabeziak gerta daitezke; hori

dela-eta, normalki kanpoko bitartekotzarik gabe alderdiek iritsitako akordio baten bidez hasten den harreman hori arautzea beharrezkoa da.

Sistema horretara jende askok jotzen ez duen arren, herri eta baserri ingurunean bizi diren per-tsona zahar batzuentzat bizi-kalitate ona eskain-tzen dien aukera bat izan daiteke.

Hori guztia dela-eta, ikusi da egoki dela biziki-detasun-egoerak arautzea pertsona batzuk etxe-bizitza berean bizi direnean, familia bat osatu gabe, alboko lineatik urruneko ahaide izanik edo, soilik, adiskidetasun edo elkartasunagatik baturik, eta ahulenari laguntzeko eta bizikidetasuna iraun-korra izateko asmoa dutenean.

Zehazki, pertsona batek edo bikote batek beste pertsona bati edo bikote zahar bati, pertso-na batzuen eta euren ondorengoan artean sortzen diren harremanen antzeko baldintzetan, etxean hartzeko eginiko eskaintzaren ondorioz sortzen den bizikidetasuna arautzen da. Bizitzaren luza-pena eta jaiotza-tasaren beherakada direla-eta, biztanleria zahartzen doa pixkanaka, eta bizikide-tasun-mota hori egituratuz arautuko duen lege babes-emaila bat soluzioa izan daiteke bizikideta-sun-mota horren aldeko hautua egiten duten per-tsona zaharren ongizate orokorrerako, haien zail-tasun ekonomiko eta sozialak konpondu ditzake eta pertsona horiek instituzio geriatrikoetan sar-tzea ez beste aukera bat ekar dezake.

Foru lege honek bi kapitulu ditu ardatz: lehen zatia pertsona zaharrak hartzeko hitzarmena era-tzeari buruzkoa da; bigarrena pertsona zaharra hartzearen amaiera eta amaiera horren ondorioak aztertzen ditu. Xedapen gehigarri bat eta amaiera-ko xedapen bat ere baditu.

#### I. kapitulua

##### Pertsona helduen harrera

###### 1. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan egiten diren familiako harrerari, pertsona zaharren eta familien, bikoteen edo bakarrik bizi diren pertsonen artekoari.

###### 2. artikulua. Kontzeptua.

Familiako harrera da zahar-etxe batean bizi nahi ez duten edo bizitzerik ez duten eta famili harreman eskasak dauzkaten pertsona zaharrei familiako zainketa arrunt eta personalizatuak ematea; horren bidez, haien bizi kalitatea hobet-zen da eta modua ematen zaie bizitza sasi inde-

pendente bat izateko ohiko ingurune baten baitan. Halakoetan, ondoko irizpideei jarraituko zaie:

1. Pertsona hartzaileak eta hartutako pertsonak ohiko etxebizitza berean biziko dira, pertsona hartzaileena nahiz hartutako pertsonena izan, lehenbizikoek bigarrenak zaintzeko, jaten emateko, laguntza emateko, haien ongizate orokorraren alde egiteko eta gaixorik daudenean zaintzeko.

2. Pertsona hartzaileek eta hartutako pertsonak laguntza emanen diote elkarri, eta etxeko gastuak eta lanak hitzartutako moduan partekatuko dituzte, betiere alderdi bakoitzaren aukera errealean arabera.

3. Harrera zerbitzuaren kontraprestazioa ondusun higikorrek edo ondasun higiezinak lagatuz edo dirutan egin daiteke.

4. Pertsona hartzaileek tutoretza eratzea sustatu beharko dute, baldin eta hartutako pertsonak haren menpe jartzeko egoeran daudenean.

5. Harrera egiten den etxebizitzak behar dituen bizigarritasun eta irisgarritasun baldintzak beteko ditu, azpiegiturretan nola zerbitzuetan.

### 3. artikulua. Modalitateak.

Familiako harrera ondoko modutan egin ahal izanen da:

1. Behin-behineko harrera. Aldi baterako izanen da, pertsonak hartzeko ahaide zuzenen atsedean aldietan edo gaixorik daudenean, edo zahar-etxe batean sartu aurreko egokitzeko modu gisa.

2. Behin betiko harrera. Bizi den komunitatean laguntzarik ez egoteak edo pertsona zaharraren beste egoera batzuek halakorik komenigarri egiten dutenean; eskualdeko gizarte zerbitzuek baimena eman beharko dute horretarako.

### 4. artikulua. Helburua.

Harrerari buruzko ondoko berezitasunak hartuko dira aintzat:

1. Harrera hitzarmena da pertsona bat edo bikote ezkondu edo era egonkorrean elkartutako bat edo guraso bakarreko familia bat, adin nahiz ezgaitasun arazoak direla eta, pertsona bati edo bikote ezkondu edo era egonkorrean elkartutako bati lotzea; azken horiek gazteagoak izan beharko dute, lotura adin arazoengatik egiten bada, ahaidetasun harremanen antzeko baldintzetan eta behar duten laguntza emateko betebeharrarekin.

2. Harrera hitzarmenaren bitartez hartzaileak edo hartzaileek pertsona bat bakarrik hartu ahal izanen dute, salbu eta hartutako pertsonak bikote ezkondu edo era egonkorrean elkartutako bat

badira edo bigarren maila bitarteko ahaidetasun gradua –odolkidetasunez nahiz adopzioz– badute. Halakoetan, harrerak bi pertsonak hartuko ditu.

3. Harrera hitzarmenak ez dakar berekin ondusunen legezko administrazioa ez eta hartzaileak hartutako pertsonen legezko ordezkariak izatea ere.

**5. artikulua.** Hartzaileen eta hartutakoen bete-kizunak eta hautaketa.

1. Harrerak eskatzen du hartzaileek eta hartutako pertsonak ez edukitzea haien artean bigarren gradu bitarteko ahaidetasunik, adindunak izatea eta jarduteko gaitasun osoa izatea, edo hartutako pertsonari dagokienez gaitasun hori haien legezko ordezkariaren, haiek zaintzen dituen pertsonaren edo testamentuz besteko tutoretza izendatzeko agirian hautaturiko pertsonen baimenaz ordezteko edo osatzea. Borondate ordeztu edo osatuaren kasuan, epailearen baimena beharko da, eta hartutako pertsonari edo bikoteari entzun beharko zaie, ezaguera nahikoa badute.

2. Hartutako pertsonak ezin dira hirurogei urte-tik beherakoak izan, eta urte gutxien dituenak gutxienez ere hamabost urte gehiago izanen ditu urte gehien dituen pertsona hartzaileak baino.

3. Adinaren aldearen baldintza ez da beharrezkoa izanen hartutako pertsonetako batek ezgaitasun fisiko edo psikikorik badu edo laguntza berezirik behar badu.

4. Pertsona hartzaileak edo pertsona hartzaileek betiere hartutako pertsonaren edo pertsonen onura bilatuz jardunen dute, harrera-hitzarmenean ezarritako epean. Oro har, epe hori ez da sekula izanen hiru urte baino gutxiagokoa.

5. Familia hartzaileak Nafarroan eduki behar du bere ohiko etxebizitza, eta behar den gaitasuna eta aurretiko jarrera izanen du pertsona helduekiko traturako, eta egonkortasun familiarra, auzoekiko harreman onak eta behar den osasun ona eta denbora pertsona helduarekin egon ahal izateko.

6. Familiako harrera egiten den etxebizitza iristeko erraza den hiri edo herri ingurune batean egongo da, eta behar diren baldintza higieniko eta osasunezkoak, ur korrontea, argi elektrikoa eta komuna izanen ditu; ez du izanen pertsona helduaren ibilera zailduko duten arkitektura oztoporik ez eta trabarik ere.

### 6. artikulua. Eraketaren baldintza formalak.

1. Harrera eskritura publiko bidez eratu behar da; eskritura hori behar den erregistroan inskribatu beharko da.

2. Eskritura publikoan alde bakoitzaren kontra-prestazioak, eskubideak eta betebeharrak jaso beharko dira, eta baita ere, kasua bada, hartutako pertsonak hartzaileei eta haien intereseko hirugarrenei eginiko dohaintzak ere, une horretakoak nahiz hil eta gerokoak. Horrek ez du berekin ekartzen hartutako pertsonaren edo pertsonen ondasunak administratzea.

3. Elikagaiak emateko kontratua, kontraprestazioa izan daiteke kapitala ondasun higikorren, ondasun higiezinen edo diruaren bitartez lagatzea. Lagapen hori atzera bota daiteke hartutako pertsonak eskatuta, baldin eta pertsona hartzaileek eskritura publikoan finkaturiko betebeharrak betetzen ez badituzte edo esker txarra erakusten badute. Dohaintzarik izan eta ondasun higiezinean bada, dohaintzak eta hartan ezartzen diren baldintzek ez diete hirugarrenei kalterik egin behar, baldin eta Jabetzaren Erregistroan inskribatzen ez badira.

## II. kapitulua

### Hartutakoaren eta hartzailearen arteko harremana amaitzea

#### 7. artikulua. Harremana amaitzeko arrazoiak.

1. Harrera ondoko arrazoiengatik amaituko da:

a) Harremana ezartzeko eskrituran hitzartu denari jarraikiz.

b) Hartzaileak eta hartutakoak ados jarrita; adostasun hori eskritura publiko batean adieraziko da.

c) Bi aldeek nahi dutelako; borondate hori eskritura publiko batean adieraziko da. Harremanaren amaiera fede emateko moduan jakinaraziko zaio beste aldeari, hiru hilabete lehenagotik.

d) Alde batek nahi duelako, beste aldeak dagozkion betebeharrak ez baditu betetzen edo bizikidetasuna zailtzen duen arrazoiren bat egotzen ahal bazaio. Halakoetan, harremanaren amaierari buruzko jakinarazpenean arrazoiak azaldu beharko dira eta berehalako eragina izanen du.

e) Hartutakoa edo hartutako bikoteko bi kideak hiltzean edo haren/haien heriotza deklaratzeko.

f) Hartzailea edo hartzaile biak, baldin eta bikote hartzailea bada, hiltzean edo haren/haien heriotza deklaratzeko. Haietako baten heriotzak orobat ekar dezake eskritura publiko bidez egindako harrera hitzarmenak ezarritako kontraprestazioa berrikustea eta harrera hitzarmena amaitzea, baldin eta bizirik dirauenak onartutako betebeharrei aurre egiterik ez duela justifikatzen badu. Hala

bada, hiru hilabete lehenago jakinarazi beharko dio pertsona hartuari.

2. Lehen idatz-zatiko a), b), c) eta d) letretan adierazitakoa gertatuz gero, balio gabetuta geratuko dira hartutako edozein pertsonak pertsona hartzaileari edo pertsona hartzaileei, edo alderantziz, emandako botereak.

3. Pertsona hartua ezkontzen bada edo harreman egonkorra ezartzen badu, harrera hitzarmena aldatu ahalko da, pertsona hartzaileak zein pertsona hartuak hala eskatuta.

#### 8. artikulua. Harrera amaitzearen ondorioak kontratugileen bizitzan

1. Baldin eta amaiera 7. artikuluko 1.a) eta b) letretan adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, aldean borondatea beteko da.

2. Aldeak ados jartzen ez badira, eta amaiera 7. artikuluko 1.c) letran adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, etxebizitzaren titular ez diren pertsona hartzaileek edo hartuek hura utzi beharko dute, jakinarazpena jasotzen dutenetik hiru hilabeteko epean.

3. Aldeak ados jartzen ez badira, eta amaiera 7. artikuluko 1.d) letran adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, etxebizitzaren titular ez diren pertsona hartzaileek hura utzi beharko dute, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik hamabost eguneko epean; etxebizitzaren titular ez diren pertsona hartuek hura utzi beharko dute, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen dutenetik bi hilabeteko epean.

4. Amaiera 7. artikuluko 1.c) eta d) letretan adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, eta harrera egiteko baldintzak eta denbora direla medio aberaste bidegabekoa gertatu bada, bere burua kaltetutzat jotzen duen aldeak kalte-ordaina eskatu ahalko dio beste aldeari. Pertsona hartuak pertsona hartzaileari egindako dohaintzak balio gabe uzten ahal dira baldin eta pertsona hartuak jarri zion baldintzaren bat bete ez badu pertsona hartzaileak.

5. Harreraren amaiera lege honen bidez sortutako erregistroari jakinarazi beharko zaio.

6. Amaiera 7. artikuluko 1.c) eta d) letretan adierazitako arrazoiengatik gertatzen bada, pertsona hartuari elikagaiak eman dizkioten pertsonak zein entitate publiko eta pribatuek, pertsona hartuaren ordean egin ahalko dute pertsona hartzaileen aurka, emandako elikagaien zenbatekoa eskatzeko.



**9. artikulua.** Harrera amaitzearen ondorioak etxebizitzan

1. Pertsona hartua hiltzen denean —eta bi badira azkena hiltzen denean—, eta etxebizitzaren jabe hura bazen, pertsona hartzaileak edo pertsona hartzaileek etxebizitzan urtebetez bizitzeko eta bertako gauzak erabiltzeko eskubidea izanen dute.

2. Pertsona hartuak edo pertsona hartzaileak etxebizitzaren errentamenduaren titularrak baziren, hiri-errentamenduei buruzko legeriak xedatutakoa beteko da.

3. Pertsona hartuek etxebizitzan urtebetez bizitzeko eta bertako gauzak erabiltzeko eskubidea izanen dute harreraren amaiera pertsona hartzaileak hiltzeagatik gertatzen bada, etxebizitzaren jabe pertsona hartzaileak izanez gero.

**10. artikulua.** Testamentu gabeko oinordetzaren ondorioak

1. Pertsona hartuen testamentu gabeko oinordetza gertatuz gero, eta bizikidetasuna gutxienez ere lau urtekoa izan bada, pertsona hartzaileak —eta bi baldin badira, biek—, ondorengoekin, ezkontidearekin, aurreko ahaideekin eta bigarren mailarainoko odol-ahaidetasun edo adopzioko alboko ahaideekin batera, eskubidea izanen du akzio pertsonala erabili eta pertsona hartuen oinordetxoei eskatzeko oinordetzako ondasunak, edo haien balioa dirutan, oinordetzaren laurdena ordezkatzan duten oinordetxoei zer erabakitzen duten.

2. Pertsona hartuak hil ziren egunetik jaso dituzten oinordetzaren errenten eta fruituen zati proportzionala ere eskatu ahalko dute, edo haren balioa dirutan.

3. Beti egotziko zaio aipatu laurden horri doako edozein tituluren bidez pertsona hartzaileek pertsona hartuengandik jasotako ondasunen balioa, edo, uko egin arren, oinordetzan eman dietenena.

4. Pertsona hartua hil eta urtebeteko epean preskribituko du 1. eta 2. idatz-zatietan ezartzen den erreklamazioak egiteko ekintzak.

5. Ez baldin badago ondorengorik, ezkontiderik, aurreko ahaiderik eta bigarren mailarainoko alboko ahaiderik, edo haien seme-alabak aurrez hil badira, pertsona hartzaileei dagokie oinordetza osoa, bizikidetasuna gutxienez ere lau urtekoa izan bada.

**11. artikulua.** Testamentu bidezko oinordetza

1. Pertsona hartuen testamentu bidezko oinordetza gertatuz gero, eta bizikidetasuna gutxienez

ere lau urtekoa izan bada, pertsona hartzaileek 7.1 artikuluan ezarritako eskubide bera izanen dute, eta aplikatzekoak izanen dira xedapen horretako 3. eta 4. idatz-zatietan egotzi eta preskribitzeari buruz emandako arauak.

2. Pertsona hartzaileek hartuei emandako laguntza eta diru prestazioen eta bizien arteko konpentsazioen edo heriotza dela-eta jasotako artean desproporzioa gertatu den kasuetan, pertsona hartzaileek kalte-ordain ekonomikoa jasotzeko eskubidea izanen dute, hartuen oinordeen kargura; adostasunik ez badago, arbitraje bidez edo epailearen erabakiz zehaztu beharko da horren zenbatekoa, honakoetan oinarriturik: aldean arteko hitzarmenak, hartzaileen bitarteko ekonomikoak, bizikidetasunaren iraupena, kontra-prestazio gisa adostutako disposizioaren munta eta utzitako ondasuntza.

Erreklamazio hori egiteko ekintzak pertsona hartua hil eta urtebeteko epean preskribitzen du.

**13. artikulua.** Onuradunen hautaketa, uko egitea eta finantziazioa.

1. Onuradunen hautaketa. Administrazioak ebatziko ditu interesatuen eskaerak, eta horretarako pertsona zaharren beharrak eta familia hartzailearen ezaugarriak bateratu beharko ditu, zenbait alderdi aintzat hartuta, hala nola, pertsona zaharrak eta familiak bata bestearikiko onarpena ematea, gizarte zerbitzuen aldeko txostena, familiaren eta hartzea eskatzen duen pertsonaren txosten medikoak, eskatzailearen eta familiaren arteko hurbiltasun ideologikoa, erlijiosoa eta hizkuntza aldetikoa, eta pertsona zaharra haren ohiko ingurunetik mugitzea desegokia izatea.

2. Uko egitea. Eskaerei uko egiteko arrazoiak hauexek dira: eskatzailearen adimeneko gaixotasuna, pertsona zaharrak bizi behar duen lojamentuaren desegokitasuna, familia hartzailearen osasuna, eskatzailearen eta familia hartzailearen arteko bateraezintasun erlijiosoa eta ideologikoa.

3. Finantziazioa. Gizarte Ongizatearen Departamentuak laguntza zehatzak finkatuko ditu hartutako pertsonentzat, beste lojamentu mota batzuetarako ere ezarritakoen ildotik.

**Xedapen gehigarria. Bakarra.** Pertsona zaharrak hartzeko erregistroa sortzea.

Pertsona zaharrak hartzeko erregistroa sortzen da, Gizarte Ongizatearen Departamentuaren menean. Horren eginkizunak erregelamendu bidez zehaztuko dira. Erregistro horrek kexetarako atal bat izanen du, kontratu instituzio honen jarraipena egin dezan.

Etxean pertsonak hartu nahi dituzten familiak eta hartuak izan nahi duten pertsonak bildu behar-ko ditu.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabetera hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proposamena, ordenagailuak erosi eta Nafarroako Foru Komunitatean Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzak arautzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ordenagailuak erosi eta Nafarroako Foru Komunitatean Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzak arautzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Ordenagailuak erosi eta Nafarroako Foru Komunitatean Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzak arautzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**Bigarrena.-** Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Ordenagailuak erosi eta Nafarroako Foru Komunitatean Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzak arautzeko Foru Lege proposamena**

ZIOEN AZALPENA

Duela zenbait urtetatik hona, herri guztietan eta arlo guztietan, informazioaren eta telekomunikazioen teknologien bultzada ikusgarria gertatzen ari da. Aurrerapen teknikoek, kostuen gutxitze progresiboak eta telekomunikazioetako azpiegitura eta zerbitzuen hedatzeak aukera ematen dute gero eta herritar gehiagok, etxetik, zerbitzu orokorrak erdiesteko aukera izan dezaten, edonon bizi izanda ere.

Nafarroa bezalako erkidego batean, non biztanleen dispersioak zerbitzu askoren garestitzea dakarren eta haien hedatze fisikoa oztopatzen duen, herritarrak teknologia berrietara hurbiltzea

eta, bereziki, Internetarako sarbidea izatea, baliagarri gerta daiteke gure lurraldeko leku urrunetan bizi diren herritarrek eta zuzeneko zerbitzua hartzeko modua dagoen munduko edozein lekutako biztanleek alde askotatik egoera berdina izan dezaten. Hori dela eta, funtsezkotzat jotzen dugu Nafarroako Foru Komunitateak bere gain konpromiso eraginkor bat hartzea Nafarroako familia guztiek teknologia berriei baliatzeko aukera izan dezaten sustatzeko eta Interneten erabiltzaileek sarea gehiago erabil dezaten. Hartara, gure erki-degoan informazioaren gizartea garatuko dugu, ezberdintasun berriak saihestuz eta guztiei aurreakuntza teknologikoaren fruituetan parte hartzeko aukera emanaz, informazioaren gizartean sarbidea edukitzea segurtatzearen bidetik.

Bestalde, herritar gehienek Interneten sartzeko aukera izan dezaten sustatzeko, komenigarria da ordenagailuak erosteko baldintza egokiak erraztea.

Aipatu helburuak lortzeko, ordenagailuak erosi eta Nafarroako Foru Komunitatean Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzen deialdi bat egin zen, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren maiatzaren 25eko 472/2001 Foru Aginduaren bitartez eta beste eragile batzuen laguntzarekin –hain zuzen ere, finantza entitateak eta telekomunikazioetako operadoreak, aurreikusitako laguntzen kudeaketa osatzen edo hartan laguntzen zutenak–, Dirulaguntzei buruzko Foru Legeko 15. artikuluan aurreikusitako figuraz baliatuta. Lankidetzat hori finantza entitateek eta Nafarroako Gobernuak sinaturiko hitzarmen batez gauzatu zen; hitzarmen haren bitartez, ordenagailuak erosi eta Interneten erabilera sustatzeko laguntzak garatu ziren. Bigarren hitzarmen batez –hau telekomunikazioetako operadorek eta Nafarroako Gobernuak sinatua–, Interneteko sarearen konexioa sustatu nahi zen Nafarroako Foru Komunitatean.

Konpromiso hori aurrekontu-eztabaiden mende ez dadin gera eta 2002, 2003 eta 2004. urteetan ordenagailuak erosi eta Nafarroako Foru Komunitatean Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzetarako deialdiak egin daitezkeen, ondoko foru legea onetsi da, non deialdiak arautu behar dituzten oinarriko printzipioak ezartzen diren: laguntzen helburua eta ezaugarriak; dirulaguntzak jaso ditzaketen jarduerak eta Interneteko konexiorako laguntzak; orde-

nagailuak erosteko laguntzak, eta dirulaguntzen araubideak.

### **1. artikulua.** Helburua

Nafarroako Gobernuak ordenagailuak erosi eta Nafarroako Foru Komunitatean Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzarako deialdiak onetsiko ditu, 2002, 2003 eta 2004. urteetarako, Nafarroako herritarren eskariei erantzuteko, hain zuzen ere urte bakoitzean 10.000 ordenagailuen mugara bitarte.

### **2. artikulua.** Deialdien ezaugarriak

Deialdi bakoitzak oinarri batzuk izanen ditu, foru aginduz onetsiak; haien helburua bete behar batzuk ezartzea da, ordenagailuak erosi eta Nafarroako Foru Komunitatean Internet sarearen konexioa eta erabilera bultzatzeko dirulaguntzak emateko. Dirulaguntzak konkurrentzia irekiaren araubideari, hala nola publizitate eta objektibotasun printzipioei jarraikiz emanen dira. Oinarri horietan foru lege honen edukia garatuko da, ondoko alderdietan: laguntzen ezaugarri orokorrak, diruz lagunduko diren jardueren xehetasunak eta haien kalitatea, laguntzen prozedurak eta deialdia aplikatzeko behar diren zehaztasun guztiak.

Foru agindu horretan, urtero, ekipo informatikoen gutxienezko ezaugarri teknikoak eta prestazioak gaurkotuko dira, eta dirulaguntzaren zenbatekoa ere gaurkotu beharko da; betiere, ezin izanen da 2002rako ezarritakoa baino txikiagoa izan.

2002rako deialdirako, ekipo informatikoen ezaugarri tekniko gutxienezkoak eta prestazioak foru lege honetako bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoak izanen dira; dirulaguntzen kopurua, aldiz, 270 euro izanen da, deialdian finkaturiko baldintza teknikoak betetzen dituzten ekipo informatikoen erosketa bakoitzeko. Bestalde, behar den hitzarmena sinatuz kanpainari atxikitzen zaizkion finantza entitateek gutxienez ere 150 euroko dirulaguntza emanen dute ekipo informatikoen erosketa bakoitzeko, erosketa hori hitzarmenean finkaturiko baldintzei egokitzen zaien entitatearen mailegu batez finantzatzen denean.

### **3. artikulua.** Entitate laguntzaileak

Aurreikusi diren laguntzak kudeatu eta herritarrek haiek eskuratu ahal izateko, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak lankidetzaz hitzarmenak gauzatu ditu finantza entitateekin eta telekomunikazio operadoreekin. Horiek denak, Dirulaguntzei buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 15. artikuluari jarraikiz, Administrazioaren entitate laguntzaile gisara arituko dira laguntza

hauek emateko, eta aurreikusitako probetxu ekonomikoen onuradun bakarrak herritarrek izanen dira.

### **4. artikulua.** Dirulaguntzak jaso ditzaketan jarduerak

Dirulaguntza emanen da Internet sarera konektatzeko ADSLren, kable-modemaren eta RDSLren bidez. Halere, kuota hori modemaren edo kasuan kasuko egokitzailearen kostuan sartu ahal izanen da.

Dirulaguntza emanen da Internetera sartzeko bidea duten telefono finko bereziak erosteko.

Dirulaguntza ekipo informatikoak erosteko emanen da. Ekipo horiek Internet sarea erabiltzeko izanen dira, behar diren hardwarea eta softwarea izanen dituzte eta, gutxienez, behar den deialdian ezarritako prestazioak izanen dituzte.

### **5. artikulua.** Onuradunak

Nafarroako Foru Komunitatean bizilekua duten pertsona fisikoak izanen dira dirulaguntza hauen onuradunak. Famili unitate bakoitzak erosketa bakar bat egin ahalko du deialdiaren babesean. Famili unitatearen kontzeptua pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan agertzen dena bera da.

Onuradunak nahi duen zerbitzu hornitzailea hautatu ahalko du laguntzarako deialdi honetan parte hartzen duten entitate laguntzaileen artean, eta nahi duten ekipoa eta hornitzailea hautatu ahalko dituzte, programa honetan parte hartzen duen banatzaile sarearen artean. Orobat, zilegi izanen dute edozein finantza entitate aukeratzea, baldin eta behar den lankidetzaz hitzarmena sinatu edo hari atxikirik badago.

### **6. artikulua.** Dirulaguntzen araubidea

Deialdi honetako dirulaguntzak jaso nahi izanez gero, laguntzarako kanpaina edo programa honi atxiki zaizkion dendetan erosi beharko dira ekipo informatikoak.

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira bestelako erakunde publiko edo pribatuek ematen duten beste edozein laguntzarekin.

Oinarri hauetan aurreikusitako baldintzak betetzen ez badira, laguntza galduko da eta, hala behar izanez gero, hartutako kopuruak itzuli beharko dira, Dirulaguntzei buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 21. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Halaber, arau-hauste eta zehapenei dagokienez, onuradunek lege horretako VI. kاپituluari ezarritakoari men egin beharko diote.

### Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak 2002, 2003 eta 2004. urteetarako Nafarroako Aurrekontu Orokorretarako proiektuetan, foru lege honetatik ondorioztatzen den konpromisoa betetzeko behar diren konklusailak ezarriko ditu.

### Xedapen iragankorrak

**Lehen.** Foru lege honen aplikaziotik ondorioztaturiko konpromisoa betetzeko, eta bereziki 1. artikuluan ezarritako dirulaguntzak betetzeko, 2002. aurrekontuko ekitaldirako Nafarroako Gobernuak kreditu berezi bat eskatzeko behar den lege proiektua igorriko du Nafarroako Parlamentura, onets dezan, hain zuzen ere foru lege hau indarrean sartu eta hilabeteko epean.

Foru lege hau onesteko garaian Nafarroako Gobernuak behar den departamentuak dirulaguntzetarako deialdirik egin badu, kreditu bereziak, kasua bada, departamentuak finkatutakoaren eta foru lege honetan ezarritakoaren artean dirukopuruetan dauden aldeak jasoko ditu.

Bigarrena. 2002. urteko deialdirako gutxienez ere eskatu beharreko baldintza teknikoak, berriz, ondokoak izanen dira:

- PCetarako:

- Pentium IV prozesadorea, 1400 MHz.koa edo antzekoa
- Disko gogorra: IDE ATA100 40 GB.
- 256 MBko RAM memoria.
- DVD-ROM irakurlea, 16x.
- AGP 4x SVGA txartel grafikoa, 3D azeleragailuarekin.

- SoundBlaster 128 PCI soinu txartela edo antzekoa.
- CRT 15" edo TFT 15" koloretako monitorea.
- 3,5"ko disketera, 1,44 MB.
- Teklatua, sagua, bozgorailuak, mikrofonoa.
- Eskuko ordenagailuetarako:
  - Pentium III prozesadorea, 1000 MHz.koa edo antzekoa.
  - 10 GBko disko gogorra.
  - CD-ROM irakurlea.
  - 128 MBko RAM memoria
  - TFT 14" pantalla.
  - 3,5" 1.44 MBko disketera.
  - AGP SVGA txartel grafikoa, 3D azeleragailuarekin.
  - Touchpad.
  - Infragorrien ataka.
  - Li-on bateria.
  - Bateria kargatzailea.
  - 56Kbptako barneko modema.
  - Fast Ethernet barruko sare txartela, 10/100.
  - Bozgorailu eta mikrofonoa.
  - Apple (iBook) eta Apple Macintosh (PowerPC G3) ordenadoreetarako: aurrekoekin homologatzeko moduko ezaugarriak.

### Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## Foru Lege proposamena, Euskal Naziorako Unibertsitateari buruzkoa

### TRAMITERA EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Euskal Naziorako Unibertsitateari buruzko foru lege proposamenaren idazkia ikusita, herriaren legegintza-ekimenaz Uxua Arbizu Rezusta andrea eta besteak aurkeztua, Biltzarreko Erregelamenduko 146.1 artikulua eta herriaren legegintza ekimena arautzen duen martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legeko 2.a) artikulua xedatutakoarekin bat, ERABAKI DA:

1. Euskal Naziorako Unibertsitateari buruzko foru lege proposamena tramitera ez onartzea, Nafarroako Foru Komunitateak horri buruzko legegintza eskumena ez edukitzeagatik.

2. Erabaki hau Uxua Arbizu Rezusta andreaki jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean irratikomunikazio- instalazioak antolatzea

### HERRILAN ETA AZPIEGITURAK BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

2001eko urriaren 29an Mahaiak erabaki zuen Nafarroako Foru Komunitatean irratikomunikazio-ko instalazioak antolatzeko Foru Lege proposamena Lurrealdearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean izapida zedila –Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2001eko urriaren 25ean egindako bileran, aintzat hartua zuen foru lege proposamen hori–. Orain egokiago deritzo Herrilan eta Azpiegitura Batzordean izapidatzea.

Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluaekin bat, ERABAKI DA:

1. 2001eko urriaren 29ko Mahaiko erabakia aldatzea, eta proposamen horretaz irizpena emateko ahalmena Herrilan eta Azpiegitura Batzordearen esku uztea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	